



EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIAL LARRIAN DAUDENENTZAKO DIRU LAGUNTZAK EUSKARA IKASTEKO

1. XEDEA

Euskaraz ikasi nahi duen eta egoera ekonomiko eta sozial larrian dagoen jendea diruz laguntzea, dirua euskara ikasteko ahalik eta oztopo txikiena izan dadin.

2. INTERESATUEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Euskaltegian matrikulatu behar dute.
- Deialdi hau argitaratzen den unean Bortzirietako udalen batean erroldatuak egon behar dute.
- Familia unitatean dauden kideak kontuan harturik, kide bakoitzeko hilabetean 500 euroko diru sarrera ezin dute gainditu.

3. EZAUGARRIAK

- Diru laguntzak euskaltegian 2011-2012 ikasterterako izen eman dutenentzako dira.
- Emanen den diru laguntza matrikula gastuengatik izanen da, eta 2011ko urritik abendura bitarteko zati proportzionala osorik diruz lagunduko da. Bortzirietako Euskaltegiko ikasleen kasuan, diru laguntzen zenbatekoak hauek izanen dira:

| Ikastaro mota | Orduak astean | Matrikula | Laguntza irailean | Laguntza 2012an |
|----------------------|----------------------|------------------|--------------------------|------------------------|
| Ikastaro arrunta | 4 ordu | 300 € | 100 € | 200 € |
| | 6 ordu | 330 € | 110 € | 220 € |
| EGA ikastaroak | 4 ordu | 340 € | 110 € | 230 € |
| | 6 ordu | 370 € | 125 € | 245 € |
| On line ikastaroak | Arruntak | 300 € | 100 € | 200 € |
| | EGA | 350 € | 110 € | 240 € |

- Bortzirietako Euskaltegikoak ez diren ikasleen kasuan, ordaindu beharreko matrikularen zati proportzionala, urritik abendura bitarteko tarteari dagokiona, diruz lagunduko zaie.
- Bortzirietako Euskaltegian izen eman duten eskatzaileek ez dute dirurik aurreratu beharko, baina 50 € ordaindu beharko diote

euskaltegiari, abal gisa. Ikasturtea bukatutakoan, asistentzia % 60tik goitiko izan bada, abala itzuliko die.

- Bortzirietako Euskaltegiakoak ez diren ikasleek matrikula ordaindu beharko dute, dagokien euskaltegian, eta mankomunitateak ikasleei zuzenean emanen die diru laguntza.
- Diru laguntzaren balorazioa Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egingen du, txosten sozial baten bidez.
- Diru-laguntza Bortzirietako Euskara Mankomunitateak emanen du, Gizarte Zerbitzuen txostenean oinarrituta.

4. DOKUMENTAZIOA

Diru laguntzaren eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera-orria, Gizarte Zerbitzuek prestatutako eredua erabilia.
- Gizarte Zerbitzuek egindako txosten soziala, eta eskatzailearen diru sarreraren frogagiria.
- Euskaltegiaren ziurtagiria, datu hauek jasoz: ikaslea bertan matrikulaturik dagoela, zein urratsetan eta zenbateko dedikazioarekin, eta zenbateko matrikula dagokion ordaintzea.
- Erroldatze agiria.

5. EPEA

- Diru laguntzen eskaera 2011ko urriaren 28a baino lehen aurkeztu behar da Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean.

6. PROZEDURA

- Interesatuek eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dute, eta zerbitzu horren esku geldituko da txosten soziala egitea.
- Eskatzaileek 4. puntuan aipatzen den dokumentazio guztia aurkeztu behar dute Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, aipatutako epean.
- Gizarte Zerbitzuak, eskatzaile guztiei dagokien txosten soziala egin ondotik, dokumentazio guztia aurkeztuko du Bortzirietako Euskara Mankomunitatean.
- Euskaltegiak faktura bat aurkeztuko dio Bortzirietako Euskara Mankomunitateari diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleen matrikula gastuei dagokiena (betiere 2011ko urritik abendura bitarteko zati proportzionalari dagokiona).
- Eskatzaileen artean Bortzirietako Euskaltegiakoak ez diren ikasleen eskaerak izanez gero, haien esku geldituko da matrikula dagokien euskaltegian ordaintzea. Mankomunitateak urritik abendura bitarteko matrikula gastua diruz lagunduko die.

- Dokumentazioa aztertu ondok, euskara teknikariek diru laguntzen ordainketa proposatuz txostena eginen dute, eta mankomunitateko lehendakariari aurkeztuko diote.
- Ondoren lehendakariak ebazpena emanen du, Bortzirietako Euskaltegiari edo hortik kanpo ari diren ikasleei dagokiena ordaintzeko.
- Batzorde Erabakitzailearen hurrengo bileran lehendakariak ebazpen horren berri emanen die batzordeko gainerako kideei.

Arantzan, 2011ko irailaren 20an
Mankomunitateko lehendakaria
Jaime Mitxelena Iturria